

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Astlehenean hasiko da 2011/2012 denboraldi zinegetikoa Nafarroan, debekualdi erdia irekita

Irailaren 11ra bitarte, galeperrak, usapal arruntak eta basahateak ehizatu ahal izango dira ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan

Viernes, 12 de agosto de 2011

Datorren astlehenean, abuztuaren 15ean, Ama Birjina Abuztukoaren jai-egunetan, abian izango da Foru Erkidegoko barrutietan 2011/2012 denboraldi zinegetikoa, "debekualdi erdia"

irekiko baita. Horrela, denboraldi horretan, galeperrak, usapal arruntak eta basahateak ehizatu ahal izango dira. Espezie horiek abuztuaren 15etik irailaren 11ra bitarte ehizatzeak aukera izango da ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan. Dena den, kupoak ezarri dira galeperraren eta usapal arruntaren kasuan, eguneko eta ehiztari bakoitzeko hamar eta bi, hurrenez hurren.

Hala ere, untxien gainpopulazioa duten esparruetan (3 untxi edo gehiagoko indize kilometrikoak) eta dagokion administrazio-eskaera izapidetu dutenetan, espezie hori ehizatu ahal izango dute pasa den abuztuaren 6tik (larunbata) aurrera. Praktika zinegetiko hori guarda aurrean dela egin behar da, eta larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan ehizatu ahal izango da urriaren 9ra bitarte.

Ehiza-denboraldiaren barruan, irailaren 4an irekiko da ehiza larriaren modalitatea, Nafarroan jarraitzaile gehien dituenarena; hots, basurdeen uxaldiak. Urriaren 1ean, berriz, usoaren eta birigarroaren denboraldia



Datorren astlehenean, abuztuaren 15ean, hasiko da Foru Erkidegoan 2011/2012 denboraldi zinegetikoa

hasiko da, tiro egiteko behar bezala baimenduta dauden postu finkoetatik ehizatzen diren migrazio-espeziena. Urriaren 9an oilagor zaleen txanda izango da; egun bakoitzeko gehienez hiru oilagor ehizatu ahal izango dira, eta nahitaez ingurune basotsuetan eta txakurren laguntzarekin ehizatuko dira. Azkenik, azaroaren 1ean, debekualdi orokorra irekiko da, eta eperrak, erbiak eta untxiak bezalako espezie autoktonoak ehizatzeke aukera izango dute ehiza maite dutenek.

Informazio eta xehetasun gehiago izateko, komeni da honako hau kontsultatzea: [2011/2012 denboraldirako ehiza-debekualdien foru-agindua](#).